

Manuel Larramendiren irakurle hautatuak: testu eleanitzunen norentzakoak eta hartzaleak*

Manuel de Larramendi's selected readers: addressees and recipients of multilingual texts.

Elixabete Pérez Gaztelu**

RESUMEN LABURPENA ABSTRACT

Se analiza la obra del escritor Manuel Larramendi con el fin de mostrar que en su producción de textos multilingües se vale de la alternancia de códigos lingüísticos (*Code Switching*) como estrategia discursivo-pragmática de selección de destinatarios-lectores, lo que le permite construir una red de complicidad con sus lectores. Se detalla la presencia y función de la alternancia de códigos en las obras multilingües y se proporcionan evidencias en favor de la tesis de que los destinatarios plenos de Larramendi son los lectores vascos plurilingües.

Manuel Larramendi testu eleanitzunen egilea aztertzen du artikulu honek erakus-teko kode-aldeketa edo kode-txandaketa (Code Switching) estrategia diskurtsibo-pragmatiko bat dela norentzako-irakurle motak hautatu eta idazlearen eta irakurleen artean konplizitate sareak sortzeko. Lanetan erakusten dira kode-aldeketa motak eta funtziak eta agerian jartzen da euskaldun irakurle (eleanitzunak) bakarrik direla Larramendiren norentzako-irakurle oso-beteak. Lan honek sendotzen du Larramendi euskaldunentzat ari zelako tesia, eta Larramendiren estrategia testu eleanitzunen ikerketaren markoa kokatzen du.

The work of the writer Manuel Larramendi is analysed in order to show that in his production of multilingual texts he uses code-switching as a discursive-pragmatic strategy to select recipients-readers, which helps him to establish some complicity with his readers. The presence and function of code-switching in multilingual works are detailed and evidence is provided in support of the thesis that Larramendi's main addressees are Basque multilingual readers.

* Eusko Jaurlaritzak ezagutu eta finantzatutako Deustuko Unibertsitateko Komunikazioen ikertaldearen (IT981-16) ildoan egindako ikerketa da.

PALABRAS CLAVE GAKO-HITZAK KEY WORDS

Manuel Larramendi; textos multilingües; alternancia de códigos; estrategias discursivo-pragmáticas; literatura del siglo XVIII.

Manuel Larramendi; testu eleanitzunak; kode-aldeketa; estrategia diskurtsibo-pragmatikoak; XVIII. mendeko literatura

Manuel Larramendi; multilingual texts; code-switching; discursive-pragmatic strategies; eighteenth-century literature.

** Deustuko Unibertsitatea /
Universidad de Deusto
elixabete.perez@deusto.es

Fecha de recepción/Harrera data: 9-01-2018

Fecha de aceptación/Onartze data: 2-02-2018

Jaiotzetik 325 urte eta heriotzatik bi mende eta erdi igarota inoren arreta erakarri ahal izatea ez dago edonoren esku. Manuel (Garagorri) Larramendik¹, baina, horixe lortu du: diciplina askotako adituen arreta bizirik edukitzea. XXI. mendeko Filología, Hizkuntzalaritz (zentzu zabalean), Literatura, Historia, Kultura ikasketak, Politika eta beste hainbat jakintzatako ikergai interesgarriak dira XVIII. mendeko Larramendiren lanak. Ikusi besterik ez dago XX. mendearen azken hamarraldian eta XXI.ean Larramendiren gaineko bibliografia nola ugaritzen joan den.

Gauza jakina da Larramendiren haria XVIII. mendetik gaur arte ez dela etenik gabea izan. Tellecheak² “primer aireador de Larramendi”-tzat daukan Mitxelenaren lanetatik hasi, Tellechearen beraren artikulu, saiakera eta edizioetatik igaro eta Altunaren, Lakarraren, Sarasolaren, Urgellen, Gómezen lanak irakurri besterik ez dago horretaz ohartzeko³. Zokoratzekoak ere ez dira herri eta kultur erakundeek⁴ bultzatuko lanak, dela Larramendiren jaiotzaren (1890, 1990), dela heriotzaren (1966) mendeurrenen kariaz; akuilu gertatu eta gertatzen dira andoaindarrarengana eta bere lanetara hurbiltzeko.

Orain heldu nahi genioke Larramendiren gaineko ikerlanetan zeharkameharka aipatzen den gai bat: Larramendi hiztun eleanitzuna testu eleanitzunen egilea. Arrazoia ez da Larramendiren egiteko hau bitxia,

1. KOKAPENA, JUSTIFIKAZIOA, HELBURUA

¹ Manuel Garagorri Larramendik bigarren abizena aukeratzeko arrazoia eta biografia oso dokumentatua argitaratu du Enrike Larrartek: “Aita Manuel Larramendiren sendia. Dokumentu batzuk”, *Leyçaur*, 6, 2000, 39.-163. or.

² José Ignacio Tellechea: “El jesuita Manuel de Larramendi. Miscelánea con motivo de su centenario (1766-1966)”, *BRSVAP*, 22, 1966, 307.-360. or.; José Ignacio Tellechea: “Personalidad humana de Larramendi”, in Joseba Andoni Lakarra (ed.): *Manuel Larramendi. Hirugarren mendeurrena (1690-1990)*, Andoain, Andoaingo Udala, 1992, 28. or.

³ Koldo Mitxelena: “La obra del Padre Manuel de Larramendi 1690-1766”, *Cuadernos de la Cátedra Feijoo*, 6, 1959, Oviedo [SHLV II, 800.-911. or.]; “Euskal iztegigileak XVII-XVIII. garren mendeetan”, *Euskeria*, VI, 1961, 7.-22. or.; “Euskara eta euskararekiko ikerlanak (1700-1880)”, *IX Congreso de estudios vascos. Antecedentes próximos de la sociedad vasca actual. Siglos XVII y XIX*, Bilbao, 1983, 237.-250. or.; “Aurkezpena”, in Ibon Sarasola: *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia. A-Aurtzen*, Donostia, Kutxa, 1984, 11.-23. or., eta abar. Erreferentzia zerrenda osatua: Elixabete Perez Gaztelu: “Larramendi Mitxelenaren begietan”, in Lakarra (ed.): *Manuel Larramendi*, 153.-175. or., Elixabete Perez Gaztelu: *Koldo Mitxelena Elissalt, egitasmoa eta egitated*, Errerteria, Errerteriako Udala, 1995. Bestetik, Patxi Altuna: “La auténtica biblioteca de Larramendi”, *Muga*, 6, 1980, 80. or., Joseba Andoni Lakarra: “Larramendiren hiztegigintzaren inguruan”, ASJU, XIX-1, 1985, 9.-50. or., Joseba Andoni Lakarra: “Larramendirekin aurreko hiztegigintzaren historiaz: aztergai eta gogoeta”, in Lakarra (ed.): *Manuel Larramendi*, 279.-312. or. eta abar, Ibon Sarasola: “Larramendiren eraginaz eta”, ASJU, XX-I, 1986, 203.-215. or., Blanca Urgell: “Axular eta Larramendi”, ASJU, XXV-3, 1991, 901.-928. or., Blanca Urgell: “Hiztegi Hirukoitza-ren kanpoko eta barruko historiaz”, in Xabier Artiagoitia, Patxi Goenaga eta Joseba Andoni Lakarra (ed.): *Erramu boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2003, 629.-649. or. eta abar, Ricardo Gómez: “Larramendiren gramatika eta gramatikagintzaren historia”, ASJU, XXV-3, 1991, 783.-796. or. eta abar.

⁴ 1992an sortu zuten Manuel Larramendi Kultur Bazkuna aipatu beharra dago. Lanok horren lekuoa: Tellechea: “Jesuita”, “Personalidad”; Patxi Altuna eta Joseba Andoni Lakarra (ed.): *Manuel Larramendi. Euskal testuak*, Andoain, 1990; Lakarra (ed.): *Manuel Larramendi*.

berezia izatea, ezta bere garaian horrela jokatzen zuen bakarra izatea ere⁵. Testu berean hizkuntza bat baino gehiago darabiltzan neurrian, interesgarria da aztertzea zerka bultzatzen duen hizkuntza hautura. Ez da zokoratu behar Manuel Larramendi oso hizkuntzaren behatzale, azterzaile eta erabiltzaile zorrotza dela. Bere testu idatzietan ipintzen dituen marka grafiko-tipografikoek ere, esanahi adierazleak ere badiren neurrian testua “multifuntzional” bihurtzen baitute⁶, horixe salatzen dute:

Larramendi parece remedar el sentido del *doucement* francés y utilizar irónicamente galicismos. De hecho subraya con alguna intención la palabra, que en nuestro texto va en cursiva [*dulcemente*]. Lo mismo ocurre líneas más abajo con el adverbio «bruscamente», que no será recogido en el *Diccionario de la Lengua castellana* hasta la edición 12.^a (1884). También subraya con alguna intención la palabra «atrapado» tres líneas más abajo; y más atrás la palabra «brusco»⁷ y el manifiesto galicismo «demando excusa»⁸.

Tellecheak hor jasotakoei Larramendik grafikoki markatutako beste makina bat hitz eta perpaus ere erantsi beharko litzaizkieke. Besteak beste, *Corografiako*⁹, *andiquis*, *andiquesas*, *jauchos*, *jancietxeas*, las *nescames*, *ezpata dantzaris*, las *carrica danzas...*

Larramendik hizkuntzen erabilera ikuspegi osatu hori izateak eta hautua egin ahal izateak bidea ematen dute, hortaz, galdetzeko zergatik, nola eta zertarako ekoizten dituen Larramendik testu eleanitzunak. Ea estrategiaren bati zor zaion testuak horrela egitea, ea hizkuntza bat baino gehiago erabiltzeak eginkizunen bat betetzen duen testuan¹⁰ eta

5 Europaren ikuspegi zabala edukitzeko, Peter Burke: *Lenguas y comunidades en la Europa moderna*, Madrid, Akal, 2006, § III eta § V batez ere, eta azterketa aplikatua ikusteko, Herbert Schendl: “Literacy, Multilingualism and Code-switching in Early English Written Texts”, in Mark Sebba, Shahrzad Mahootian eta Carla Jonsson (ed.): *Language mixing and code-switching in writing. Approaches to mixed-Language written discourse*, New York, Routledge, 2012, 27.-43. or.

6 Mark Sebba: “Multilingualism approach to the analysis of multilingual texts”, *International Journal of Bilingualism*, 17(1), 2012, 97.-118. or.

7 RAEn *Diccionario de autoridades* (1726-1739) lanean italiar jatorrizkotzat daukate hitza: “BRUSCO, CA. adj. Aspero, desabrido, desapacible. Es tomado del Italiano *Brusco*, y de ordinario se suele decir del tiempo, quando es desapacible y destemplado. Lat. *Asper Rudis*, et e”. <http://web.frl.es/DA.html>

8 José Ignacio Tellechea (ed.): 6. oh., in Manuel Larramendi: *Sobre los Fueros de Guipúzcoa. Conferencias curiosas, políticas, legales y morales sobre los fueros de la M.N. y M.L. provincia de Guipúzcoa*, Donostia, Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, 1983, 219. or.

9 Manuel Larramendi: *Corografía o Descripción general de la muy noble y muy leal provincia de Guipúzcoa*, José Ignacio Tellechea (ed.), Donostia, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1969 [1754], 219.-221. or.

10 Richard Hodgson eta Ralf Sarkona: “Seeing in Depth: the Practice of Bilingual Writing”, *Visible Language*, 27 (1-2), 1993, 7.-40. or.

testutik kanpo, ea lortu nahi dituen helburuak lortzeko bide egokiagoa gertatzen zaion hizkuntza bat baino gehiago erabiltzea.

Altuna eta Lakarraren 1990eko lanari esker, galdezko moduan gara gaztelaniaz idazten duenean beste hizkuntza batzuk —latina eta euskara bereziki— tartekatzen dituen bezala egiten duen euskaraz ari denean ere. Alegia, Larramendik euskaraz ari denean zein hizkuntzako testuak eta zertarako txertatzen dituen, kontuan izanda, gaztelaniaz ari denean ez bezala, argitaratutako euskal testu gehienak ez zirela, berez, argitaratzekoak.

Honenbestez, gure helburua da Larramendiren kode-aldaketen ildo nagusiak agerira ekarri eta testuak eratzeko estrategia hori Larramendiren helburuekin lotzea. Aldi berean nahi genuke Mitxelenak eta batik bat Lakarrak eta Sarasolak, Urgellek eta bestek erakutsia sendotu: Larramendik euskaldunentzat ere¹¹ idatzi zuen.

Bere xumean, gure lan honek, era berean, lagundu nahiko luke testu eleanitzunen ikerketan.

Hainbat hizkuntzalarik izan dute ahotan Larramendiren eleanitzasuna, eta eginkizunen batekin ere lotu izan dute. Esate baterako, Mitxelenak jada 1959ko “La obra del Padre Manuel de Larramendi 1690-1766” lan aitzindari ezinbestekoan, Lakarrak, eta Altunak euskal testuen bilduman¹².

Mitxelenak¹³ helburu ludikoarekin lotzen du Larramendik gaztelaniazko testuan euskara (eta latina) tartekatzea:

Una de sus bromas favoritas consistía en intercalar como ejemplos palabras y frases vascas poco amables para sus contradictores, tanto para intrigarles como para enfurecerles si llegaban a enterarse de su significado (Oin oharrean eransten du: Lo hacía también en latín: «Armesti imbecillitas, dum Academicis palpatur (...)» Diccionario, pról., p. ccxxvi)

Lakarrak¹⁴ beste ikuspegi batetik heltzen dio gaiari: “Erdal testuetako euskarazko zatiak ez dira beti arrotzak iraintzeko edota haietaz irri

2. LARRAMENDIREN TESTU ELEANIZTUNEN BITARTEZKO ESTRATEGIA

¹¹ Mitxelena: “Aurkezpena”; Lakarra: “Hiztegigintza”, Sarasola: “Eraginaz”, Urgell: “Axular”. Bestetik, ordea, edonon irakur dezakegu —oraindik ere bai [2005!], bost lekutan— hizkuntz ideaia zaharkituak zituela [...] euskaldunentzat baino erdaldunei begira lan gehiago egin zuela [...]. Blanca Urgell: “Etimología eta neología Larramendiren *Hiztegi Hirukoitzean* (1745)”, *Lapurdiun*, IX, 2005, 299. or.

¹² Lakarra: “Hiztegigintza”; Altuna eta Lakarra (aurrerantzean AL): *Euskal*.

¹³ Mitxelena: “Obra”, 906. or.

¹⁴ Lakarra: “Hiztegigintza”, 19. or.

egiteko; *Corografia*ian esate baterako euskaldunen batasun faltaz eta alferkeriaz, eta horietatik datorzkeen arriskuez, mintzo da”.

Altuna eta Lakarrak¹⁵ aipatzen duten arrazoia da “noiz edo behin” erdaldun hutsei *gauzak* ulertzeko bidea ixtea: “Hurrengo lau zati hauek 1757garren urte inguruan idatzi zuen *Sobre los Fueros de Guipúzcoa* liburutik atereak dira. Gazteleraz ari dela maite baitu noiz edo behin, zenbaiten belarriez entzun behar ez dituzten gauzak euskaraz esatea”.

Hiru arrazoi horiek zabaltzen digute bidea Larramendiren kodealdaketaren (CSen) eginkizunen argibideari heltzeko.

Larramendi oso hiztun hornitua da, euskara, gaztelania, latina eta frantsesa¹⁶ gutxienez menderatuko zituen, eta ongi daki hizkuntzaren jabetzak, hiztun eleanitzuna izateak¹⁷ zein ahalmen ematen dizkion eta hizkuntzen erabilera zer eragin izan dezakeen¹⁸. “[Larramendik badaki] bere hizkuntza diglosi egoera larri batean dagoela eta alfabetatua egotea eta gaztelaniaz jakitea, biak bat direla”¹⁹. Ohartua da, era berean, hizkuntzek hiztunen artean zubiak eraikitzeko, komunitateak sortzeko²⁰ balio duten bezala hizkuntza ez menderatzeak bereizteko ere balio izan dezakeela. Eta testuinguru horretan erabakitzuen du Larramendi hiztun eleanitzun denak testu eleanitzunak egitea.

Idazle eleanitzunak, testu eleanitzunak berak (bere era askotako konplexutasunekin), eta testu eleanitzunen irakurleak eta testua ekoizteko eta hartzeko moduak aztertzeak duen interesa azpimarratu bezala azpimarratzen ere dute ikertzaileek²¹ metodologia berezi eta

15 AL: *Euskal*, 28. or.

16 Hizkuntza frantsesarri ari zaio euskara Larramendik sortutako “elkarrizketa” moduko honetan: “No te basta el sequito, que tienes de otros! el averte levantado à ser Lengua de moda, y de Corte, y casi universal en Europa, donde tienes tambien la honra, de que seas uno de los mas curiosos adornos de la buena crianza, cultura de ingenio, y de las bellas Letras?”. *Antigüedad*, 175. or.

17 José Ignacio Tellecheak alderdi hori azpimarratzen du; zenbateraino menderatzen zituen Larramendik hiru hizkuntzok. Tellechea: “Personalidad humana”, 27.-38. or.

18 Zokoratzeko ez da nola bereizten duen Larramendik nork zer jakitea komeni den; zehatz esan, herri xeheak zer jakin behar duen eta zer ez. “Ocasiones hay en que no debe predicarse en vascuence o en la lengua común de todos los oyentes, y es en aquellos sermones cuyos asuntos miran a los que mandan, dirigen y gobernan, y no son para el común de los oyentes, ni éstos es razón que separan mal gobernados están y qué pecados cometan en su gobierno los que mandan, a menos que no haya otro camino para su enmienda que en sonrojarlos en público y con todo el común. Lo mismo digo de aquellos sermones cuyos asuntos, predicados en la lengua materna de los oyentes, causarían más daño que provecho a sus almas, más peligro de caer en algunos errores que instrucciones y defensas de las verdades católicas. Que aun por esto, están bien prohibidas las versiones de las Escrituras en la lengua vulgar, a pesar de los clamores y compasiones afectadas de quesnelista y otros herejes”. *Corografia*, 289. or.

19 Urgell: “Etimología”, 308. or.

20 “Euskaldunei batasun eske”, in AL: *Euskal*, 25.-27. or.

21 Mark Sebba, Shahrzad Mahootian eta Carla Jonsson (ed.): *Language mixing and code-*

mugarriturik ez izaki eta, hainbat diziplina eta ikuspegitatik heldu behar zaiola, hel dakiokela, testu eleanitzunaren azterketari, Gumperz-en CSen (Code Switching) teoria aitzindariaz eta Blom eta Gumperz, Gumperz-en lanez²² atzendu gabe.

Kode-aldaketa (-txandaketa, -alternantzia... *Code Switching*, *Code Mixing*) batik bat ahozko komunikazioan, hiztun elebidunen (edo eleanitzunen) elkarrizketan kokatu eta aztertu ohi da, eta testu idatzietan aztertu izan denean, idatzian txertatutako ahozko itxurako adierazpenak izan dira batik bat ikergaia (“esandakoaren itxura duten testu txertatuak”²³). Ikusiko dugun bezala, estrategia hori ere badarabil Manuel Laramendik.

Ordenagailu Bidezko Elkarrizketak (*Computer-Mediated Conversation*) sortu baino lehenagoko testu idatziek, idatziak izateagatik beragatik, ahozko komunikazio aurrez aurrekotik bereizten dituzten hainbat ezaugarri dituzte. Funtsean, testu idatziek igorle bakarra dute (idazlea) eta ez dira bi lagunen (edo gehiagoren) arteko mezu truke idatziak. Gutun trukeetan ere parte hartzialeak ez daude aurrez aurre, ez dute harremanik, ez aldi berekorik ez berehalakorik, eta ez daude elkarri erantzuteko, elkarri laguntzeko egoeran. Horrek guztiak erakusten du testu eleanitzunotako kode-aldaketa ez dela gertatzen CS ohikoenak gertatzen diren komunikazio egoeran²⁴.

Pragmatikaren eta Komunikazioaren Teoriaren ikuspegitik begiratuta, esan daiteke aski onartua dagoela honako hipotesia: komunikazio saioan parte hartzen duten hiztunek kodeen ezaupide gutxiengoa konpartitzen dute; irudikapenen munduetan (*representaciones*²⁵) ukigune zabalago nahiz meharragoak dituzte (zenbat eta zabalagoa izan orduan eta komunikazioa bideratzea errazagoa), eta, batasun hori dela medio eraiki ahal dute elkarreko komunikazioa. Eta, guztiaren gainetik, hiztunak prest daude komunikazioan elkarrekin aurrera egiteko, elkarri laguntzeko. Hastapen horrek, ordea, ez du Laramendiren jokamoldea azaltzen. Hobeto esan, Woltonen komunikazioa aztertzeko ikuspegia

switching in writing. *Approaches to mixed-Language written discourse*, Abingon, UK, Routledge, 2012.

22 Jan-Peter Blom eta John J. Gumperz: “Social meaning in linguistic structures: Code switching in northern Norway”, in John J. Gumperz eta Dell Hymes (ed.): *Directions in Sociolinguistics*, New York, Holt, Rinehart & Winston, 1972, 111.-136. or.; John J. Gumperz: *Discourse Strategies*, Cambridge, Cambridge University Press, 1982.

23 Mark Sebba: “Researching and Theorising Multilingual Texts”, in Sebba et al. (ed.): *Language*, 1.-26. or.

24 Baino bada ahozko CSak aztertzeko metodologia testu idatzi eleanitzasunetara aplikatuta. Montes-Alcalá, esate baterako, nobela latinoa horrela aztertu du: Cecilia Montes-Alcalá: “Code-switching in US-Latino Novels”, in Sebba et al.(ed.): *Language*, 68.-88. or.

25 María Victoria Escandell: *La comunicación*, Madrid, Gredos, 2005.

hona egokituta²⁶, esan daiteke Larramendi idazlearen testu eleanitzunen estrategia ulertzeko elkarlanerako hastapenaren jakinaren gaineko urratzetik abiatu behar dela, hastapena urratzeak berak balio baitio Larramendiri irakurle mota bat irakurketatik baztertu eta “irakurle oso-betearekin” konplizitate sarea sortzeko.

Larramendi idazleak kode bakarra erabilita ekoitzi zitzakeen lanak, egin zitzakeen testu elebakarrak, baina ez zuen horrela egin. Larramendi idazle eleanitzun igorlek testu eleanitzunak sortu zituen norentzakoa begiz joa zuela, zein irakurle eta entzulerentzat ari zen bazekiela —igorleek ezin zehatz jakin badezakete ere (balizko ez baina) benetako hartzailea nor izango duten—: XVIII. mendeko euskaldun eleanitzun eta erdaldun (euskalduna ez den) alfabetatuak. Eta aukera horretan oinarrituta erabakitzentzu du testua ekoizteko estrategia.

Hablándoles una lengua que no entienden y sin poder replicar nada (...) Pero además lo que parece descortesía, está ciertamente compensado con que sepan ustedes que hablo por camino impensado, viene a ser en favor de ustedes, de cuya banda se ponen algunos anónimos que muerdo en vascuence.

Pues sepamos lo que se les dice.

No es necesario: basta que ellos lo entiendan.²⁷

Honenbestez, gure hipotesia da Manuel Larramendik jakinaren gainean hautatu duela testu eleanitzunak (eta, horrela esatea badago, ahotsanitzunak) egitea, bere helburuetarako eragingarriagoa iruditzen zaiolako.

Hurrengo bi ataletan hori azaltzen eta sendotzen ahaleginduko gara euskaraz eta gaztelaniaz ekoitzitako testuak aztertuta. Latinez idatzitakoak²⁸ albo batera utziko ditugu.

Era berean, gogoan izanda Larramendiren langintzak (gutxienez *De la Antigüedad y universalidad del Bascuence...*(1728), *El Imposible Vencido...* (1729), *Diccionario trilingüe...* (1745) eta *Corografía...* (1754)) zentzu hartzen duela bere egitasmo orotarikoan, Mitxelenaren²⁹ hitzez esanda, “Larramendik izkribuz eta predikuetan erabiltzen zen euskara garbitu nahi izan zuen, jaso eta aberastu; eredu bat sortu eredurik ez zuen hizkeran”.

26 Komunikazioa aztertzeko inkomunikazioan pentsatu beharra dago. Dominique Wolton: *Il faut sauver la communication*, Paris, Éditions Flammarion, 2005.

27 *Sobre los Fueros*, 277. or.

28 Ik. Fidel Fita: “Biografía del autor”, in Larramendi: *Corografía*, 5.-7. or.; Manuel Larramendi: *Autobiografía y otros escritos*, José Ignacio Tellechea (ed.): Donostia, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1973.

29 Mitxelena: “Euskara”, 60. or.

Larramendik³⁰ eskainitako tresnak erabilita besterik ezingo da helburua bete:

Pero de qué ha de servir, valgate Dios, el Arte, el Diccionario, y todo esse afán, y trabajo, si no ay libros en essa Lengua, si está encerrada entre aquellos riscos, si no la ha de aprender nadie? Muchos sies son esos, y estaba respondido con otros tantos noes, o nones. Al primero digo, que ay algunos pocos libros en Bascuenze: y si quieres mas, yo se los escrivré de buena gana, si (y va uno) quieres aprender la Lengua, para leerlos: si (y van dos) dieres unas friegas á la bolsa, para imprimirllos. Al segundo digo, que no le ha ido tan mal al Bascuenze entre aquellos riscos, que le han sabido conservar tantos centenares de años, lo que no supieron los llanos. Mas ceñido estuvo en sus principios el Latin, y despues se extendió: y lo mismo puede suceder al Bascuenze, y mas, si nos empeñamos en hablarle en todas partes, con la misma licencia de los que hablan Francés. Al tercero digo, que à lo menos la aprenderán los mismos Bascongados, que no la saben signatè & reflexè: passen los terminos de Escuela, en que signifco, que no la saben científicamente, y con reflexa, distinguiendo de Declinaciones del nombre, y pronombre, de Conjugaciones...

Hortaz, komeni da ikustea lan motaren eta helburuaren arabera nola darabilen kode-aldaaketaren estrategia.

Erdal testuetan txertatutako euskal zatiak hurrengo punturako utzita, Altunak eta Lakarrak bildutakoaren arabera, euskal testuon multzoa osatzen dute bi gutunek, hiru sermoik, eta bi otoitzentzako eta dotrina baten itzulpenek. Bistan da ez direla genero berekoak testuok eztestu tipologiarekin ikuspegitik, ez solaslagunen (igorlearen eta norentzakoaren) arteko harreman motaren ikuspegitik: gutunek hartziale bakarra dute, mugatua, eta igorlearen eta hartzialearen arteko harremana pribatua da (berez); gainerakoetan, ordea, hartzalea talde mugatu gabea da. Transmititzeko bitartekoaren ikuspegitik ere ez dira gisa berekoak: komunikazio idatzi pribatua gauzatzen da gutunen bidez (berez); jendaurrean norbaitek ahoz esan eta gainerakoek entzun sermoietan, eta otoitzak eta dotrina ere irakurtzeko (bakarka nahiz taldean) eta entzutekoak dira.

Bistan da, hortaz, Larramendik apenas idatzi zuela euskaraz argitaratzeko testurik. Ez dirudi Larramendik argitaratzeko asmoz idatzi zionik gutuna aita Gandarari, ez Azkoitiko, ez San Agustin eguneko, ez Andoaingo sermoiak, ez bi otoitzentzako itzulpenak behinik behin. Honelaxe diote Altuna eta Lakarra editoreek (41. or.), otoitzak direla eta: “Noiz eta zertako itzuli ote? Beretzat, seguru asko, berak esan behar edota ohi

3. ERDARA EUSKAL TESTUETAN: LATINA NON ETA ZERTARAKO

zituenean [sic], latinez esan ordez euskaraz esan ahal izateko”. Burgosen 1747an argitaratu zen Asteteren dotrinaren itzulpenean euskara ez den beste koderik ez darabil.

Aita Sebastian Mendiburuk frantsesetik itzulitako *Jesusen Biotzaren Debocioari* egindako gutun-hitzaurrea, “Euskara berriaren Carta Magna”³¹ gutuna izanik ere, Larramendik berak eskatu zion Mendibururi argitara zezala. Horren interesgarria eta garrantzitsua den testu honetan ez da Larramendi kode-aldaketaz baliatu; euskara hutsez egina dago.

Esan dezagun, bidenabar, Larramendiren gutun-hitzaurrearen norentzakoa Mendiburu bera ez ezik, Mendibururen lanaren balizko irakurle eta entzuleak ere direla. Horiengana guztiengana iritsi nahi du andoaindarrak: “Iracurrico dute alá Eleizetan nola echéetan, eta Eusqueraz utsic daquitenac ta Gaztelania arrastaca báicican eztaquitenac ere, naico dute beiñ baño gueyágotan aditu, icasi ta gogoán sartu hitzéz predicatú ciniena ta oraingótz bearbadá azturistic daucatena”³².

Euskal testuotan, bada, ez du Larramendik beste koderen batera jotzen (latinera, gaztelaniara) testua osatzeko, non eta ez diren formula finkoak, esapide eginak, aipuak (CS etiketa modukoak³³): “Iracurri ditut Gabon cantac, eta azquenean paratu diotet *Imprimantur, ain daude ederrac, gozoac, quilicorrac (...)* Atsedén dezalá zuré gloria caburic báguecoan. Atseden dezalá zuré, ezti guciac baño gozoago dan, paqué ederréan. *Requiescat in pace*”³⁴.

Sermoieta, batez ere, latinezko autoritateen testu zatiak tartekatzen ditu “testuartekotasunaren bitartez, testuari berari prestigioa eman nahian”³⁵. Askotan euskarara itzuli edo moldatzen ditu Ebanjelioko zatiak, sainduen esanak...

Esatendigu, Virgiña guciz santea dagoala zutic gurutzearen ondoan, *stabat iuxta crucem Jesu Mater eius*: ta eleizac dionez, gurutcea da bere beso biaquin balanza bat, ceñean pisatu zan Christoren gorputza, beata, *cuius bracchiis pretium peperdit saeculi: statera facta corporis, tulitque praedam tartari (...)*

Biz, ordea, San Agustin, munduaren lembiziko argia bezela, bezte guzien iturria, ez gereizic, ez odeiric, ez illumberic ezatugu zuena. “*Vos estis lux mundi*”. Zerren, Santo Tomas aingeruac cionez, Jaincoac lembiciko argia egin zuen argi-utsa; argi-utsaren izatea zegoan erara, argi *guziakicoa*, eta *guzieracoa*. *Secundum communem lucis naturam*³⁶.

31 AL: *Euskal*, 33.-37. or.

32 AL: *Euskal*, 37. or.

33 Shana Poplack: “Sometimes I’ll start a sentence in English y termino en español: toward a typology of code-switching”, *Linguistics*, 8, 1980, 581.-618. or.

34 AL: *Euskal*, 39. eta 88. or.

35 Schendl: “Literacy”, 37. or.

36 AL: *Euskal*, 47. eta 60. or.

Gaztelaniaz ere apenas tartekatzen duen ezer. Andoingo sermoian darabilen “De luengas tierras, luengas mentiras” esapidea besterik ez dugu ikusi, eta hau ere aldamenean euskal itzulpena duela.

Gandarari egindako gutunean ere gutunetako hasiera-bukaeretan erabiltzera bultzatu nahi duen *agur* formularen aldeko argudioetan besterik ez darabil latinezko eta gaztelaniazko hitzik.

Esan daiteke, hortaz, Larramendiren euskal testuok guztiok dutela norentzako mota bera, hizkuntza gaitasunari dagokionez: euskaldunak dira. Euskaldun alfabetatuak, elizgizonak —askotan esan izan den bezala, ebanjelizatzen, pulpitan aritu behar zuten elizgizonak—, baina euskaldun letratu gabeak ere bai; Larramendiren hitzak entzumenaren bitartez iritsiko zaizkio euskaldun multzo handi bat.

Alberdi eta Aragónek³⁷ diote XVIII. mendeko (balizko) euskaldun irakurleak, alfabetatuta (erdaraztuta) egon zitezkeen euskaldun irakurleen multzo nagusia, batik bat elizgizonetara eta aberaskumeetara mugatu behar dela³⁸, garai hartako erakunde batzuen eta gizakume batzuen³⁹ euskara irakaskuntzara eramateko ahaleginak ahalegin⁴⁰. Entzule huts izan zitekeena, berriz, herri xehe euskaldun hutsa⁴¹ besterik ezin izan zen; alegia, eskolatu gabeko “herri xehea”⁴², libururik erosteko

³⁷ Xabier Alberdi eta Álvaro Aragón: “Euskarazko irakaskuntza Goierrin XVIII. mendeko bigarren erdian”, *Lapurдум*, IX, 2004, 7.-22. or. Besteak beste, jasotzen dute Hondarribiko bikario Roque Jazinto Salazarrek (1777an) Iruñeko artzapezpikuari eskatzen diola sermoiak euskaraz bakarrik egin ahal izatea, gaztelaniaz ere eginda elizara joaten diren Iparraldeko euskaldunek ez baitute ulertuko.

³⁸ Imícozek beste alderdi batetik heltzen dio euskaldun letradunek euskara bazterrean uzteko arrazoiari: “Con la apertura del siglo XVIII, se produjo cierto desenclavamiento lingüístico, relacionado con las carreras del comercio y del servicio al rey, un fenómeno selectivo pero de cierta amplitud, que está por evaluar. Esta demanda social interna, selectiva pero fuerte, en el seno de la propia sociedad vascófona, conllevó un avance del uso de la lengua castellana, ampliando la población bilingüe. Larramendi hizo referencia a un fenómeno semejante en Guipúzcoa, a mediados del siglo XVIII”. José María Imícoz: “Entre apertura y «enclavamiento». Las redes de los navarros en la primera globalización (1512-1833)”, *Príncipe de Viana*, LXXVI 26, 2015, 139. or.

³⁹ Larramendik ez ziola irakaskuntzaren alderdiari heldu, hainbat arrazoi direla medio aldarrikatu du Mitxelenak: “Obra”, 908. or., *Historia de la literatura vasca*, Madrid, Minotauro, 1960, 121. or., “Euskararekiko”, 54. or. (ik. Perez Gaztelu: “Larramendi” eta *Koldo Mitxelena*). Lakarrak, berriz, azpimarratzen du bere lanaren bitartez, hain zuzen ere, garatu ahal izan zela arlo batzuetako terminologia (Lakarra: “Hiztegigintza”).

⁴⁰ Iku Azpiazuren lana apud Alberdi eta Aragón: “Euskarazko”.

⁴¹ Sarasola: “Eraginaz”, 320. or.

⁴² “Hara zer dioen Mogelek beren predikuen hartzaleari buruz: ‘Eguia esan bear bada, Euscalerrietacon Apaiz, Fraile, ta Anima-zai guciac esan dezakegu bidaldua (sic) edo autuac guerala berri on animaren gañecoac emateco, ez Erreguei beren Jaureguietan, ez Andiqui goratu, edo Jaun ure-cillarria ugari darabiltenai, ez jaquituria lurrecoz beren ustez beteric dauden guizonez arrotzaarrat, ta bai nequezale, bearquin, archulari, olaguizun, icazquin, emacume gorula, eula, jostun, ta onelaco gende mé ta becoquico icerdi larriarequin oguia billatu bear dutenai. *Evangelizare pauperius miscit me Dominus*’. *Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac*, Iruña, 1800: iv.”. Iñaki Aldekoia: “Ilustrazioa eta euskal

adina diru ez zeukan jendea⁴³, “kultur maila apala eta hizkuntza maila desegokia” zuena.

Euskal testu hutsak irakur zitzaketen euskaldunek gaztelaniaz, gutxienez, jakingo zuten (hala ikasiko zuten eskolan) eta latinez (elizigizonak ziren batez ere⁴⁴) eta, beharbada, frantsesetxez ere bai. Irakurle mota honengan eragin nahi du bereziki Manuel Larramendik, azken helburura iristeko giltza dira eta: herri xehearengana iristeko egin dezatela arimazaintzan euskaraz, euskara maila duin batean.

Larramendik bere euskal testu (ahozko nahiz idatziak) eginez, *eginez* erakusten die, hain zuzen, euskaldunei maila bateko euskaran aritu daitezkeela. Tresnak, gainera, eman dizkie: gramatika eta hiztegia.

4. ERDARAK ETA EUSKARA GAZTELANIAZKO TESTUETAN

Gaztelaniaz idazten duenean ere oso garbi dauka Larramendik zein irakurle mota duen —hobeto esan, dituen— jomugan, norentzat idazten duen. Badaki euskaraz jakiteak, hain zuzen, bereizten dituela bi irakurle multzo handiak eta, horrela, batzuetan erdal irakurle hutsari mintzatzen zaio, gaztelaniaz (baina euskal irakurleak ere ulertzen duela):

Eta arren obeago ote da, orañago icusi diotegun bidea, eragozten ta guelditzen dituztela bazarre lenagocoetan aguindu diranac, ceiñen ustean ta zai ceuden Hiri guciac? (...) Eztañ bear, ez bear; eztañ nai, ezcuta ecin citequeana ta Guipuzcoari cecarrera bidegaberic latzena ta miñena. Esta lengua no es para Ustedes; respondedme «tú lo eres»; y vamos adelante, hasta que los interesados os sirvan de intérpretes y escoliadores⁴⁵.

Eta euskaldun irakurleari, berariaz, euskaraz, erdal irakurleak ulertuko ez duelakoan:

Déjenme ahora zumbarme algo con nuestros *andiquis* y *jaunchos* de Guipúzcoa⁴⁶, si no con todos, con algunos de ellos; pero no nos

literatura”, ASJU, XLII-2, 2008, 223. or.

43 Urgell: “Axular”, 920. or.

44 “Los que debieran estar más instruidos en lo dicho, son los que están menos y los que hablan el vascuence indignamente y sin rastro de inteligencia. Estos son los eclesiásticos, religiosos, caballeros y gentes acostumbradas desde chicos al castellano o a la gramática que aprendieron del latín. Supieron, cuando muchachos, poco vascuence, y es de lo que en aquella edad son capaces”. *Corografía*, 283. or.

45 *Sobre los Fueros*, 275. or. Ikuo arestiko Imízcozen iritzia.

46 Croceren zentsurak ere badu interesik: “El capítulo «De la nobleza de la sangre [...]» contiene muchas cosas buenas y dignas de saberse; pero está nímicamente prolífico, el estilo en partes acre, en partes poco grave y con algunas expresiones ajenas de la circunspección de un escritor religioso en una Historia seria: v. gr, la que está en la línea última de la p. 189, donde dice, «No me busquen la boca, que la tengo algo caliente»; ítem la zumba que da en

entenderán otros. ‘Emen ere Zuec Gaztelauen erara hitzeguin bear. (...) Eta hau onela dala, obe dezute alaba chucun hori ezcondu emengo tratralari aberas batequin, ecen, ez Gastelaco, eta besteetako aise-zagui galbardun ascorequin. Ez ni salatu, ta orain agur.’

Es, pues, necesario que se desengañen los castellanos, y también algunos *andiquis* de Guipúzcoa que con grandísima imprudencia usan de las aprensiones y modos de hablar que en Castilla sobre la nobleza de sangre⁴⁷.

Norentzako-irakurleen arteko bereizkuntza hau guztiz garrantzitsua da baliatu nahi duen testua antolatzeko estrategiarako. Ondoren ikusiko dugu azterketa.

4.1. Erdara erdal testuetan: latina, frantsesa

Larramendiren gaztelaniazko lanetan lekuia dute latinak (oso usu lan batzuetan) eta neurri apalagoan orduan kulturaren hizkuntza zen frantsesak.

Prezeptiba klasikoak agindu bezala⁴⁸, Larramendik gaztelaniazko lan guztietai latinismoak, latinezko hitz, esaldi, pasarteak (*ab initio, in bonam partem, ut sic..., Loquere adolescens ut te videam...*) tartekatzen ditu, aipu gisa. Iturri ohikoak: Horazio, Zizeron, Kintiliano, Escaligero, Virgilio, Platon, San Jeronimo, San Isidoro, San Agustin... eta hiztegi juridikoak eta dokumentu zaharrak ere bai.

Autoritateak testuratzeko baliabide erretorikoa lagungarria gertatzen zaio idazleari bere helburuak lortzeko; lehia dialektikoan garaile irtetea. Gramatika eta hiztegiko hitzaurreak oso aukerako testu motak dira horretarako⁴⁹.

Latinaz baliatzen da Larramendi, era berean, azalpen (meta) linguistikoak, etimologikoak emateko, bai *Antigüedad*, bai *Imposible*, bai *Diccionarion*. Azken bietan bai hitzaurretan, bai corpusean bertan. Hiztegi hirukoitzaren jomuga hizkuntzak euskara eta latina dira, hain zuzen ere.

Frantsesari (maila apalagoan italierari) ere zabaltzen dizkio atek lan batzuetan. Gramatikaren aurrekari *Antigüedad* 1728koan,

vascuen a los que llama *Andiquis* o *Jauchos* de Guipúzcoa, la cual, aunque no la entiendan los castellanos, no sonará bien a muchos vascongados y será censurada de muchos más, a lo menos como ajena a la seriedad y circunspección religiosa (...) Juzgo que este capítulo se debe reformar o corregir según estos reparos”. *Sobre los Fueros*, 348.-349. or.

47 *Corografía*, 153. or.

48 Mitxelena: “Obra”, Itziar Túrrrez: “Larramendi y Astarloa a la luz de la preceptiva”, *Letras de Deusto* 34, 102, 2004, 177.-188. or.

49 Túrrrez: “Preceptiva”.

joko (jolas?) literarioan paratzen ditu hizkuntzak, pertsonifikazioa (prosopopeia) dela medio. Euskara “atso” moduan irudikatua hizketan jartzen du Larramendik latinarekin, erromantzearekin, frantsesarekin eta italierarekin. Hurrengo pasarte eleanitzunak garbi erakusten du Larramendiren umorezaletasuna eta komunikazio egoera kontrolatzeko gaitasuna:

(...) tomen assiento, si se lo permite su desasosiego. Domine Latin, faelicem precor diem. Señor Romance, buenos días, Monsieur Francés, bon jour. Buon giorno, padrone Italiano. Quien es esta, la responden todas sobresaltadas? Qué vieja tan desesperada? *Atózte, prosigue el Bascuenze, atózte, edér, galántac.* Tu lo eres, tu lo eres, gritan ellas al punto. Y el Bascuenze, qué si quiera no entendeis el galántac, que me han usurpado por essos barrios? Pues mirad, que os he llamado hermosas, y bien hechas⁵⁰.

Geroxeago, frantsesari iseka egiteko atalean (“Burlase de Francés”) frantsesak frantsesez hitz egiten dio eta euskarak euskaraz (nahiz ondoren gaztelaniaz jarraitzen duen). Hemen ere hizkuntza bakoitza bere hizkuntzan aritza sinesgarritasuna emateko baliabide estilistikoa izateaz gain, irakurle euskaldunari bidea ematen dio Larramendik (frantsesek ulertu edo ez) euskaraz idatzitakoaren kontura barre egiteko: “*Franc. Sacre Dieu! Je ne puis pas souffrir l'effronterie de cette vieille crottée des années. Basc. agó isilicán, ciquin liquits orí: esagutze-aut*”⁵¹

Sobre los Fueros, 1757ko “hitzaldi edo elkarrizketa bilduman”⁵², batez ere, gipuzkoarra frantses parlamentarioarekin ari denean, han-hemen frantsesezko hitzak tartekatzen dituzte bi solaslagunek eta, honela, testu polifonikoa eratu.

Que, no obstante, se reservaron la libertad de servirse de su poder absoluto, y que esto se conoce en la conclusión de las Letras patentes: «*Car tel est notre bon plaisir*» (...) y de reducir al Parlamento con sola una *Letra de cachet* a un montón numeroso de y no más, de hombres desgarnachados y depuestos⁵³.

50 *Antigüedad*, 165. or.

51 *Antigüedad*, 175. or.

52 Honelaxe aitortzen du Larramendik berak aitzinsolasean. Erreparatu, berriz ere, zer garrantzi ematen dion norentzakoarengana iristeko moduari: “Este tratado sobre el mismo asunto días ha que yo le tenía escrito, todo seguido y a manera de cuestión y método escolástico, sin divisiones ni títulos ni párrafos separados. Pero habiéndole después leído, se me hizo muy pesado por su tirantez y ninguna interrupción, aun para tomar aliento. Por esto, y para hacer menos molesta su lectura, le doy al público con esta nueva forma y título de *Conferencias*, en que entran personas diferentes que, ya me arguyen, ya me censuran la doctrina que voy estableciendo: y yo me voy desenvolviendo con la intrepidez genial de este país, sin ceñirme demasiado a cumplimientos afectados, ni perder tiempo en averiguar si sería mejor sacarlo con el aire de *Diálogos*, que con el título de *Conferencias*”. *Sobre los Fueros*, 3. or.

53 *Sobre los Fueros*, 199. eta 201. or.

Euskalduna honela zuzentzen zaio: monsieur, *tour* (o redoble), *Parbleu*, caballero mío (...) estando vos sin garnacha *sans la robe de conseller*, Frantsesa euskaldunari, berriz: mon Reverend, (llegar) *aux prises*, ¡Oh, *badinez trop mon pere!* ...⁵⁴

Autobiografian ere badu frantsesa tartekatu izanaren adibideren bat edo beste (275. or.): “Pero quédese esto para otra conversación. *A revoix Mesieurs* (*sic!*). Esperen ustedes, dijo el viejo”.

4.2. Euskara erdal testuetan

Larramendik erdal lanetan gaztelania eta euskara txandakatzeak eman du hizpide handiena. Ikus dezagun, lehenik eta behin, eta xehetasun guztiekin ez bada ere, zein lanetan zertarako, zer lortzeko tartekatzen dituen Larramendik euskal testuak gaztelaniazkoetan. Guztiarekin ere, ez dezagun ahantzi norentzako bakarra euskalduna dela; euskalduna besterik ezin dela izan testu osoaren “irakurle oso” bakarra.

4.2.1. Kode-aldaaketa? Mailegutza?

Hizkuntza hartzaleak erabat berendua izatea, sintagmetako osagai arrunta izatea eta halaxe marka morfosintaktikoak hartea erabili izan dira unitate lexikoak kode-aldaaketatzat edo mailegutzat jo behar ote diren erabakitzeko. Horren arabera, Larramendik darabiltzan izen batzuk (izenak baitira oro har) mailegutzat jo beharko lirateke, gaztelaniazko sintagmetan erabat txertatuta daude eta. Urrutiago gabe, gaztelaniazko determinatzaileak, pluraleko morfemak dituztela darabiltza izenok. Grafikoki markatu ditu hitzok (letra etzanean), ordea; ez bide dauzka, hortaz, gaztelaniazko diskurtsoko gainerako osagaien parekotzat.

Antigüedad gutxitan tartekatzen du euskal hitz edo esaldirik erdal testuan. Kasuren batean perpaus barneko CSa (edo mailegua) da: “En las otras no se ve mas que *naste barraste* [*sic*], confusion”⁵⁵.

Corografia, berriz, hasieran esan bezala, askotxotan egiten du: *andiquis, andiquesas, jauchos, jancietxeas, las nescames, zamorros, mozorros...*

Autobiografian ere bai, inoiz (266. or.): “El pleito era sobre una yugada de tierra, y la sentencia manda plantar todos los *lancherris* sin el menor examen”.

Gipuzkoa eta gipuzkoarrak deskribatzeko terminoak dira asko; horietako franko gaztelaniaz ordainik ez dutenak. Batzuetan

54 *Sobre los Fueros*, 210., 224., 217. eta 224. or.

55 *Antigüedad*, 154. or.

gaztelaniaz hitz horien baliokideren bat ematen du Larramendik; beste batzuetan testuinguruari esker inferitzen du irakurleak mezua. Lexiko-premiak eskatutako kode-aldaketatzat (edo mailegutzat) jo daitezke eta kulturalki aski markatutzat⁵⁶. Harritzekoa ez da *Corografian* erabiltzea batez ere gisa horretako hitzak.

4.2.2. Kode-aldaketa azalpen metalinguistikoetan

Euskara bera lanaren aztergaia izateak edo ez izateak eragina du euskal hitzak, esaldiak, testu zatiak liburuan aipatzean. *Antigüedad*, gramatikan, hiztegian, *Corografian* pasarte batzuetan, euskalkien arteko konparazioa egiten duenean, ezinbestean jaso eta eman behar ditu euskaraz zerak. Helburu metalinguistikoa duten aipamenak dira. Gaiak berak eskakizun du kodea aldatzea.

Euskararen gramatikak euskaraz jaso behar ditu aztergaiari dagozkionak, parean dituztela eredu grekolatinoak⁵⁷ zehaztutako forma eta paradigmak. Euskal hitzak, sintagmák, perpausak, latinezkoak eta gaztelaniara itzulitako euskal adibideak jasotzen ditu.

Euskal literaturako aipuak testuratzen ditu. Kodea aldatzen du, euskal testuak itzuli gabe ematen (eman nahi) ditu eta. Gramatikan eta *Corografian* aipatzen ditu. *Corografian*, euskalkien berri emateko leku bateko eta besteko idazleen lekuoak ematen ditu (Axular, Utergako apaiza ...). Gipuzkeraren adibidea berak sortua da. Geroxeago aipatuko dugu.

4.2.3. Kode-aldaketa inoren hitzak txertatzeko

Batzuetan kode-aldaketa inoren —euskaldunen baten— aipuak jasotzeari zor zaio. Frantsesari buruz aritzean esan bezala, baliabide estilistiko-linguistiko honen bitartez jatorrizko ahozko mintzoaren irudikapen modukoa eraman nahi du testu idatzira, “errealismo” kutsua eman nahian. Perpaus arteko CSa izan ohi da. Kasu honetan kode-aldaketa helburu estilistikoari zor zaio batez ere.

Hainbat lanetan darabil Larramendik eginkizun hori duen kode-aldaketa. “Elkarriketek” zenbat eta leku gehiago izan testuan, orduan eta aukera gehiago du horretara jotzeko. Gaiagatik, lanaren egituragatik, lan aukerakoenak *Corografia*, *Sobre los Fueros* eta *Autobiografía* dira. Adibide batzuk ekarriko ditugu, baliabidearen erakusgarri.

*Sobre los Fueros*en kontalariaik herriaren ahotsa ispilatzen du; Erregeari *Bizi bedika* ari zaio (17. or.):

56 Montes-Alcalá: “Code-switching”.

57 Gómez: “Gramatikagintza”.

No habrá habido hombre ni mujer que no rebosase de gozo y que no prorrumpiese en gritos de agradecimiento y alabanzas de Rey tan justificado y santo en vivas y aplausos repetidos: «*Vici bedi Jaun done Erregue gurea, vici bedi, vici anitz urtez, vici dedilla urte ascotan, vici dedilla. Esquer ta esquer milla onelaco aita ordeari, vici bedi milla mendez...»!*

Batzar Nagusietako zaldun eta ordezkarien berri ere ematen du (“juntero de la Alcadía de Sayaz”⁵⁸): “*Deabru echera ta bidera! Orain datozi gu orrequin (...) Ordu gaistoa ayentzat, ez gaude gu aec bezala uzquia iñoi garbitzen oituaç*”⁵⁹

Corografian, narratzaileak balea-arrantzaleei, sakristauari... euskaldunei entzundakoa jasotzen du:

No oye Neptuno otro lenguaje, sino aquí, *jea mutillac ezquer!*, allí *janaiac, orain escui!* y queda más atónito, no oyendo la jerga común de *a estribor y a babor* (...). Salió a misa un sacerdote, y tardando el ayudante, se arrimó a la peana del altar un caballero muy conocido y erudito de este país; pero nada pudo atinar de lo que debía responder al sacerdote. Llega el sacristán, y viendo el lance, le dice: *munduco berriqueta guciac badaquizquizu, eta Meza laguntzen ez?*, y le hizo retirar corrido y desatinado (...) pero en Guipúzcoa son dados a vestirse y engalanarse, y estiman más que uno les diga: *Ederqui apaindua zaude*, que no el que les diga: *Oparo barazcaldu dezu* (...). No sucede tal cosa con los sermones castellanos de hoy; si no fuera tan grande la piedad de los vascongados, al oír al predicador la primera cláusula del castellano le dirían: *aita, jachi zaite ortic, etzaitugu aditzen*. Otro tanto hicieran en Madrid y en otro cualquiera lugar de Castilla si el predicador empezase a predicarles francés o vascuence⁶⁰.

Autobiografian (267. or.): “*Ba padiagu⁶¹, arriari agoza*, dijo en esto un Tertulio sacudid: eso va muy serio y a manera de púlpito”.

Hurrengoan hiru hizkuntzaren arteko aldaketa gauzatzen du: “Y aquí nuestro Viejo, *oriec eztaquite latin hora, tempus loquendi, et tempus tacendi*”⁶².

58 *Sagaz?* “Tiene hoy Guipúzcoa cuatro lugares señalados para residencia de su diputación general y de la audiencia con su corregidor [...] Tiene tres distritos, que de tiempo inmemorial se llaman *alcaldías mayores*. La de Sagaz, y comprende á Aya, Errecil, Bidania, Goyaz, Beizama. La de Arenia, y contiene á Lazcano, Ichaso, Olaberria...”. *Corografía*, 6. or.

59 *Sobre los Fueros*, 73. or.

60 *Corografía*, 32., 19., 216. eta 286. or.

61 *Sobre los Fueros* en hitz hori darabil. Mutil gazte baten ezpainenetan paratzen du hitza andoaindarrak: “Bapadiegul!” (191. or.). Larramendik hiztegian “Una y buena” sarreraren itzulpentzat ematen du: “bat badiegu, apadiegu, hori ere bapadec” (*Diccionario*).

Beste inoren, zahar apalaren, eta “gure” ahotik iraulitako hitzen konbinazioa ere egiten du inoiz:

Muy mortificados nos quieren: *esquerric asco* por tan buenas lecciones de espíritu. (...) En cuanto a lo 1º: *gaudem isilic*, dijo un viejo sencillo: *musean jocatudira; eta laguncho ori ibilli da noronz eguzqui, aronz burusi*. Aquí le dijimos los demás: *Urlia, baioté?* Y nos respondió resueltamente, *alajaña ezpaderitzat eguaia*, y fue aplicando preciosamente el juego del mus, y concluyó diciendo, *eta au onela espada, oquerrac zecen [zucen?] ditzala. Eztidilla zapuzu; noizean bein loac artzen díu edocein*. (...) Los dos Jueces son contra nosotros: doscientos esperamos tener de nuestra parte, cuando nos oigan. *Gaudeo (sic!) berriz isilic, ezperen mingaña dilit dilit dagoquit*⁶³.

4.2.4. Kode-aldaketa. Larramendiren euskal ahotsa erdal testuetan

Larramendi kontalaria bere⁶⁴ ahotsaren bitartez ere zuzentzen zaio irakurleari, euskal irakurle eleanitzunari. Ez beti modu berean, ezta helburu berarekin ere.

Mitxelenak zehaztu bezala⁶⁵, umoreaz baliatzen da Larramendi. CSak baliabide estilistikoak dira irakurlearen irribarrea lortzeko; irakurlearekiko konplizitatea bilatzen du adibideetan, tartekietan txertatzen dituen zirien bitartez.

La segunda objeción sea en el tumulto de los que en esto siguen a Mariana. Lo mismo es oírme decir v.g. *ha choraburu ciquiñac!* que hazer ascos, quite esse guirigai, essa algarabía, essa lengua de burros y brutos⁶⁶.

Entre tanto vayan unas cuantas voces del uso mas obvio, y vulgar sin distinción ninguna de dialectos, y diganlos, a qué Naciones se deben apropiar, o si pertenecen al residuo.

Chori-buru, puztua.

Ero, garbi, buztan, latz.

Nondic, hiri, ciquiñ orri,

Beaitz, aldia, eldu, zac?

Eztec, berdiñ, iguerrico,

Hitz, oy-etan, cer, datzan (...)

63 *Autobiografía*, 268.-269. or.

64 Arestian jaso dugun *Sobre los Fuerosko hitzaurrean garbi aitortzen duen bezala*: “Por esto, y para hacer menos molesta su lectura, le doy al público con esta nueva forma y título de *Conferencias*, en que entran personas diferentes que, ya me arguyen, ya me censuran la doctrina que voy estableciendo: y yo me voy desenvolviendo con la intrepidez genial de este país, sin ceñirme demasiado a cumplimientos afectados”.

65 Mitxelena: “Obra”, 906 .or.

66 *Antiguedad*, 107. or.

Con la basura avia de aver dicho; pues llamandolos descuidos, y abono, les quadraba bien este nombre, y no assi el de moneda aun con el adjetivo de falsa. Y á esto llama obsequio de la Academia española? *Ausaz Galiciarren bat da gure cimaur zale au? Aguiri deu, ongarribilla dabillean. Alámbere eztacar usai donquea (...)*

Utzi diozagun Mayansi, jaquiúndeco máyan janári oníc ifinten eztiguári, ezpadá lapico ustelbat, arbiz, azáz, chongoz, biricáquiz, hitz batean, zadurá báduraz beteá.⁶⁷

Atsotitzak ere tartekatzen ditu helburu bererako:

Idiac bearrean gurdiac orro. A su tiempo y en su lugar daremos nuestro descargo: entretanto la Diputación es nuestra Madre⁶⁸.

Pone luego la retorsión en forma, que poco ha trasladamos: y esta dice que es la misma Logica del Demonstrador. *Baña guré catuác buztaná lúce, norc berá bézala béstearac úste.* Engaña Armesto a los Lectores, quando les dice...⁶⁹

Barrena husteko, kanporatzeko bidea ematen dio kode-aldaketak Larramendiri: euskaldun irakurleekin konparti ditzake bere sentimenduak, euskaraz ez dakitenak kanpoan utzita.

Autobiografía, “La tertulia de Hernani” izeneko atalean askotan tartekatzen ditu bere oharrik, iruzkinak adierazten dituzten sintagmák, perpausak... Atsotitzak, esaerak (*noronz eguzqui, aronz burusi; au onela ezpada oquerrac zecen [zucen?]ditzala*); bertso modukoak (*Gaudeo (sic!) berriz isilic, ezperen mingaña dilit dilit dagoquit*) ere bai. Ematen du esan nahiko ez lukeena, pentsatu bai, baina ahopean besterik kanporatu nahi ez duena adierazten duela euskaraz⁷⁰.

Perpaus arteko CSak erabili ohi ditu horretarako:

Fácil es decirlo: digan en qué y por qué; y si no, diremos con igual facilidad, que tales críticos no conocen de cara a la vergüenza. *Beraz guezurra diote;* no lo entienden los castellanos (...) Nos muerden y quieren comer a bocados y nos quieren lelos: ¡qué mal gusto! *Ez orixe: gaz pipertuac gaude:* Nos azotan, y quieren que no peleemos; nos apalean, y hemos de sufrir callandito los palos (...) Y dicen que les levantamos falso testimonio, *igues vide farragarria*⁷¹.

67 *Diccionario*, 198., 218., 214. or.

68 *Autobiografía*, 264. or.

69 *Diccionario*, 220. or.

70 Mitxelena: *Historia.*

Euskaldunak limurtzeko, euskaldunen kontzientzian eragiteko, euskaldunak esnarazi eta lanera bultatzeko aldatzen du Larramendik diskurtsoko kodea euskarara. Euskaldun irakurleei —bakarrik— ari zaie, zuzenean, eta euskaldunek ere badakite hori; erdal bitartekorik gabeko harremana eratu nahi du Larramendik.

Yo les hablaré no solo despacio, sino por escrito un poquito de Bascuence en este mi dialecto de Guipuzcoa, y á bien seguro, que no entiendan, ni el sentido, ni aun la significación de las voces sueltas, y hablaré en la materia que vamos tocando.

Euscaldunai osassuna

Uste deu guré urliac (aditzen názue, nori nagocán, beguirá, ez ni salatú) badaquielá dána, ta datequeán guciá, ónaco Latíñezco cerrendá bátzuec irábiatuko ditueláco (...) Iñarrusi beár guénduque gucioc hizjário eráusle motél au, ta onén lagún irúrazayac (...) Baña ez bide du Eusquéra gaisoáć, are bere echápean, ez semé, ez adisquide biotz onéz nai dionic: ta argátican daude guciac aiň geldi, aiň isill, escuac tolesturic, naiz bestú ta ichúzquitu dezátela⁷².

Lanera bultzatu, eta argudioak ere eman nahi dizkie euskaldunei, erasotzaileei (Armestori, Mayansi...) erantzuteko bitartekoak eduki ditzaten.

Gipuzkeraren erakusgarri izateko sortzen du Larramendik bere lumatiak *Corografiako* euskal testu zatia, Altunak eta Lakarrak “Euskaldunei batasun eske” izendatua. Aspalditik “Eascal Erriac” edertu eta jasotzeko lanean dabilen Larramendik dei egiten die euskal irakurleei, euskaldunari (“hika” hitz egiten dio), alferkeria, nagikeria uxatu eta elkarrekin lanean hasteko; itxaropen handirik gabe, hala ere:

Baldin elcar artzen baguendu gucioc, nor bere sallari dichecala, Francian icaratuco gintuque franciar guciac, ta Espanian españiar guciac. Non da ordea elcarte hori? Nagoan isillic. Nere min garratzena da, are eztacuzcula onetatic darraizcun calteac eta gaitzac; eta, dirudienez, ezagutuco ere eztitugula, ditugun on piscac galdu ditzagun artean⁷³.

Sobre los Fueros de Guipúzcoan “probintziaren” antolamendu politikoaren auzian bere pentsamendua adierazteko baliatzen da euskarara aldatzeaz. Aldizka, baina, jakinik izango dela testua ulertuko duenik (arestiko “anónimos que muerdo en mi bascuence”⁷⁴, esate baterako).

72 *Diccionario*, 213.-214. or.

73 *Corografía*, 300. or., AL: *Euskal*, 26. or.

74 *Sobre los Fueros*, 277. or.

Alegia, Larramendiren kode-aldaketaren estrategiak sendotzen du Mitxelenak proposatu (ez beti modu berean) eta Lakarrak, Sarasolak, Urgellek⁷⁵ eta bestek sendotutako tesia: Larramendi ez zen ari erdaldunentzat bakarrik, “erdaldunak harritu beharrez”; euskaldunentzat ere, euskaldunentzat batez ere ari zen. Bere norentzakoa euskaldun eleanitzuna zen.

Beste zehaztapen batzuk alde batera utzita⁷⁶, Larramendiren balizko irakurleak erdaldun hutsak baziren, horrek ez zukeen azalduko, esate baterako, zergatik bukatzen duen 1728ko euskararen aldeko diskurtsoa (*Antigüedad*) kodea aldatuta, “Agur, irakurle mayte” esanez. Zergatik, kontrara, hurrengo urtean argitaratu zuen gramatikan ez dituen itzultzen euskaratik (gaztelaniara) usakume ongi gisatuarti eskainitako “Amarduna”, ez liburura daramatzan Etxeberriren poemak. Euskara hutsez utzi ditu.

Ez da ulertzen, era berean, gramatikako poesiaren gaineko atalean (“De la Poesia de que es capaz el Bascuenze”), perpausetik kanpoko CSetara joz ematen dituen hitz-eraketaren gaineko azalpenak (*comentario*) euskaraz egitea:

Lenén, ori berá esan nahi deu *Principe*, nolá Latinéz badiogú, *principem locum tenere*, lenéngó lecua, edó lecu lenená iduquitza, euquitza. *Lenén goiá*, goitua, goicoá, goratuá, orobatézcoac direa hitz oec (synonimos): eta emén ez hitzai, baicic hitzaquin esán, edó adierázó nahi degunari oartú bear gáitzaizca. *Ausartzía* alá déritza valentiari: *onesguná*, onetsi, amatu, maitatu; etá andic *onesguná*, amorea, maitetasuna⁷⁷.

Ezta ere, ildo beretik, *Diccionario*ren hitzaurrean azalpen batzuk euskaraz ere ematea, “denek ulerdezaten”⁷⁸. Eta lan berean, “Euskaldunai osasuna” izeneko zati antologikoan gisa honetako tartekiak txertatzea ere ez: “(aditzen názue, nori nagocán, beguira, ez ni salatu) (...) (Zartú dec, atsotú dec (eztéc hitz au Erderaz esangó)⁷⁹.

75 Perez Gaztelu: “Larramendi”, *Koldo Mitxelena*; Lakarra: “Hiztegigintza”; Sarasola: “Eraginaz”; Urgell: “Axular”.

76 Esate baterako, euskaldunen hizkuntzarekiko kezka falta, hizkuntz gaitasuna ez lantza, analogiaz baliatzeko gauza ez izatea (*hiztun ergelak* izatea, AL: *Euskal*, 37. or.): “(...) aun hasta los nombres mas obvios se les hagan [euskladunei] difíciles, por solo mudar el caso, dejar el articulo, y otras variaciones propias de la *Syntaxis*”. *Imposible*, 389. or.

77 *Imposible*, 392. or.

78 Urgell: “Etimología”, 303. or.

79 *Diccionario*, 214. or. Ez gatoz guztiz bat Altuna eta Lakarraren ikuspegiarekin: “Madrileko Diarista zirelakoei lazki erasotzen die [...] Mayans delakoari (garaiko español filologorik handienari) adituko ez duelakoan euskaraz egina. Horregatik eskatzen die hasieran euskal irakurleei: «beguira ez ni salatu». AL: *Euskal*, 21. or. Zer dela eta ezkutuan jokatu, baldin eta iraindu nahi denak irainak ulertuko ez baditu?

Zergatik amaitzen duen gramatikako I. kapituluko § IV. atala (“Declinación del nombre acompañado”) eta *Autobiografiako* “La tertulia de Hernani” CS enblematiko⁸⁰ baten bitartez ere ez da ongi aditzen:

Otra objecion hazen contra el Bascuenze; por que en esta Lengua todo se ha de construir al rebes, por la posposicion, que tiene de articulos (...) Pero yo hago mal en cansarme en estas puerilidades. *Goazén emendic*⁸¹.

Y protestamos, que no ha sido nuestro ánimo el dar a nadie el más leve desabrimiento y ofensión, ni que pierda nadie un ápice del decoro y honor que se merece por su elevación y talentos. *Goacen bada urren artean*⁸².

Datuok guztiok indartzen dute kode-aldaketaren arrazoia testuinguru horietan euskaldunei bakarrik zuzendu nahi izatea dela.

5. LARRAMENDIREN HELBURUAK ETA KODE-HAUTUA

Larramendi igorle eleanitzunak helburuaren eta norentzako motaren arabera egokitzen du bere diskurtsoa. Erdaldun eta euskaldun alfabetatuantzat ari da erdaraz ari denean, baina kode-aldaketara, euskara tartekatzera jotzen du bere irakurle osoarengana, hizkuntza mugarik ez duen euskaldun alfabetatuarengana, iritsi nahi duenean: euskal jesuita “maiseatzaileak”, doctrina erakusleak, sermoigile-predikariak... helburu erlijiosoak bultzatuta, batez ere, izaera praktikoa duten Larramendiren lanetara (gramatikara, hiztegira) hurbiltzen direnak. Ez baita ahantzi behar Larramendiren azken helburua dela herri euskaldunarekin harremana duten erlijio gizonek euskara zaindu, duinean sermoiak, doctrina ematea⁸³. Helburu horretara iristeko giza bitartekoei eskaintzen dizkie tresnak Larramendi eragile, gidariak⁸⁴. Agindu-gonbitak egin ere bai. Modu zabalagoan ikusita, Larramendik euskaldun ikasien hizkuntza eta kultura maila bateko kultur komunitatea sortu nahi izan zuen, zailtasunak zailtasun. Larramendik euskara noranahiko egin nahi izan zuen, geroago Mitxelenak egin nahi izan zuen bezala⁸⁵:

Labur eta zehazkiago aitor dezadan: Larramendi izan da, lehenbiziko aldiz eta erabat, hizkuntza larrekoa noranahiko bihurtu nahi izan duena (...) Gure egunotaraino begira egon gabe, horrexek erakusten digu Larramendi

80 Poplack: “Sometimes”.

81 *Imposible*, 17. or.

82 *Autobiografía*, 276. or.

83 Jesús María Lasagabaster: “La ilustración en la vida literaria vasca del siglo XVIII”, *Lapurdum*, 9, 2004, 149.-157. or.

84 AL: *Euskal*, 10. or.

85 Perez Gaztelu: *Koldo Mitxelena*.

izan zela, lehengo eta behin, “aldiritarren” hizkuntza hiritartu nahi izan zuen lehen euskaltzalea⁸⁶.

Larramendik irakurle hautatuekin konplizitate sare bat sortzen du, “isilpeko informazioa” konpartitzen dute eta, aldizka, elkarrekin barre egiten dute jomugan dituzten erdaldunen bizkarrera. Nolabait esan, irakurketa eleanitzunak irakurleari eskatzen dion lan handiagoa umorea konpartitura ordaintzen dio Larramendik⁸⁷.

Gainera, Mariana, Mayans... barregarri uzteak ahultzen ditu eta, aldi berean, irakurle euskaldunak hartzen duen mezua da beldurrik ez izateko aditu sonatu horiei; Larramendi jakintsuak bere babesia ematen die.

Larramendi idazleak⁸⁸ baliabide estilistikoak darabiltza testua aberasteko. Ironia du gustuko eta helburu ludikoa ere bilatzen du eleanitzasunaz baliatuta⁸⁹, erdal testuetan euskal testuak tartekatuta. Alderantziz esanda, eleanitzasunak, kodeez baliatu ahal izateak, umorea adierazteko bidea zabaltzen dio⁹⁰ Manuel Larramendi eleanitzunari.

Manuel Larramendik testu eleanitzunak eratu ditu gaztelania, euskara, latina, eta, neurri txikiagoan, frantsesa erabilita. Erakutsi uste dugu Larramendik kode-aldaketara jotzen duela hainbat eginkizunetarako.

Prezeptibak aginduta tartekatu ditu klasikoen aipuak, latinez.

Baliabide estilistiko egokia gertatzen zaio kode-aldaaketa testuari errerealismo kutsua emateko: frantseseko eta euskarazko aldaketen

6. AMAIERA, LABURBILDUZ

86 Mitxelena: “Atarikoa”, 33. or.

87 Hodgson eta Sarkona: “Seeing”

88 Larramendi euskal eta erdal idazlearen mailaz aspaldi mintzatu zen Mitxelena *Historian*, 93. or. eta hh.: “escritor fluido y brillante [...] sorprende en realidad que en las historias de la literatura castellana de su siglo, en que tantas obras de erudición se reseñan, no se le conceda espacio [...] Amó con pasión las polémicas y en ellas derrochó agudeza y una socarronería irónica [...] es siempre personal, variado en registros y rico en sorpresas [...] Su espontáneo buen humor, su *entrain*, el placer evidente que saca de la disputa se comunican fácilmente al lector. Con todo su respeto a la preceptiva de la época, tenía un fondo de humor, una viva y gozosa intuición de las incongruencias de la personalidad humana que hubiera hecho de él un buen humorista en tiempos como el nuestro en que el humorismo se ha convertido en una técnica apreciada y racionalizada”.

89 Hodgson eta Sarkona: “Seeing”.

90 Burkek jasotzen du European, XVIII. mendearen, oso ohikoa zela dramaturgoek entzuleen barrea bilatzea sozialekoak, azentu “bereziak” erabilita (Burke: *Lenguas*, 48. or.). XXI. mendearen oraindik ere bizirik dago Pello Kirten eta Txomin del Regatoren moduko “umorea”: euskaldunak erdaldunen aurrean barregarri uztentzu erdara mugatuan hizketan jarrita (*espacuence* areagotua erabilita, ik. Karlos Cid: “Hibridismo lingüístico en la Vasconia peninsular: substrato vasco en el español”, RLLCGV, XVIII, 2013, 263.-282. or.).

arrazoia, askotan, horixe da. Testuak umorez zipritzintzeko ere balio dio.

Euskal testuen bitartez konplizitate sarea sortu nahi du Larramendik irakurle euskaldunekin; erdaldun hutsentzako ezkutuko mezuak igortzeko baliabidea da.

Hori guztia ezin egin izango zuen, ez zuen zentzurik izango, baldin eta Larramendi euskaldun irakurleentzat arituko ez balitz.

Bestetik, berriz, Larramendiren testuek aukera ematen dute testu eleanitzunen ikergaia plazaratzeko. Ordenagailu bidezko komunikazioak bereziki bultzatu du testu eleanitzunen azterketa. Kode bat baino gehiago testu berean elkarrekin erabiltzea berez ez da ez ahozko komunikazioari bakarrik dagokion ez lagunarteko mailari bakarrik dagokion gertakaria.

Gizarte eleanitzunetan, administrazioko, hezkuntzako eta abarretako dokumentazioaren ondoan, iragarkiek, kaleko hizkuntza paisaiaren osagaiak eta bestek ispilatzen dute kode anitzasuna. Testugintzak ere aspaldi ispilatu izan du jokaera hori⁹¹. Euskararen eta gaztelaniaren arteko bi norabideko harremana ere berria ez da⁹², eta XVIII. mendeko Larramendiren testu eleanitzunek, bada, aukera ematen dute atzera begirako ikererro honi heltzeko.

Pragmatika aipatu dugu lanean zehar, testua komunikazio ibilbidean kokatu eta osorik aditzeko euskarri ezinbestekoa baita. Manuel Larramendi gizon pragmatikoa zen eta testu eleanitzunak egin zituen bere helburuetara iristeko estrategia hobetzat edukiko zuen eta. Alegia, guztiak erakusten du Larramendik barrenduak zituela Pragmatikaren oinarritzko kontzeptuak, Mitxelenak Sarasolaren hiztegiaren “Atarikoan” dioenaren harian, lexikoaren alorrekoak zituen bezala.

Amatu horrek, bidea utzi ez badut, erabilera berezia du, **maitatu-k** eta ez bezalakoa, eta maila ere bai, erabilera bezain berezkoa. Hitz horrek, hona erraz gezurtakizun den ustekeria, ez du gehienbat —sekula ez duela esaten ez naiz ausartzen— “haragizko” kutsurik. Beste moduz, ez zuen garai hartako mutilak nahiz gizonak aldameneko neskatxa nahiz emakume hazio, ezkongai adina ezkondua (barka, orain, ez dakit ze sasi-arrazoigatik, **ezkongabe** entzuten dena) gogoan edo/eta eskumenean zuenean erabiltzen. Egitate hori, **amatzea** alegia, Jainkoari, Jainkoarengandikako legeari, Ama Birjinari eta horrelakoei zor zitzaien. Gainerakoak beheragoko eta arruntagorekin kontent ziren.

91 Sebba, Mahootian eta Jonsson (ed.): *Language*.

92 Adib., Karlos Cid: “Hibridismo”, “Hibridismo lingüístico en la Vasconia peninsular: influjo de la lengua castellana en la lengua vasca”, RLLCGV, XIX, 2014, 247.-266. or.

Orduko jendeak, diodan bidenabar, bazekien, ohartuki jakin gabe noski, zer zitekeen gero izendatuko zuten pragmatika. Txunditurik geldituko zen, esaterako, entzun izan balu **Kaixo!** dela nonahi, noiznahi, nornahirekin erabiltzen den euskal diosala. Beste hainbeste, noski, irakurri izan balu **Alajainkoa!** (erdaraz egiten omen den) teatro-saio baten tituluau. Zergatik ez dute jartzen: ¡Como hay Dios! Ez dakitelako euskarazkoa noiz eta nola erabiltzen den; euskarazkoak zer esan nahi duen hitzez hitz. (Letrakera lodia jatorrizko testukoa).

BIBLIOGRAFIA

- Alberdi, Xabier eta Aragón, Alvaro: "Euskarazko irakaskuntza Goierriin XVIII. mendeko bigarren erdian", *Lapurдум*, IX, 2004, 7.-22. or.
- Aldekoa, Iñaki: "Ilustrazioa eta euskal literatura", ASJU, XLII-2, 2008, 211.-235. or.
- Altuna, Patxi: "La auténtica biblioteca de Larramendi", *Muga*, 6, 1980, 80. or.
- Altuna, Patxi eta Lakarra, Joseba Andoni (ed.): *Manuel Larramendi. Euskal testuak*, Andoain, Andoaingo Udala, Euskaltzaindia, Eusko Jaurlaritza, 1990.
- Blom, Jan-Peter eta Gumperz, John J.: "Social meaning in linguistic structures: Code switching in northern Norway", in John J. Gumperz eta Dell Hymes (ed.): *Directions in Sociolinguistics*, New York, Holt, Rinehart & Winston, 1972, 111.-136. or.
- Burke, Peter: *Lenguas y comunidades en la Europa moderna*, Madrid, Akal, 2006. [*Languages and Communities in Early Modern Europe*, Cambridge University Press, 2004].
- Cid Abasolo, Karlos: "Hibridismo lingüístico en la Vasconia peninsular: sustrato vasco en el español", RLLCGV, XVIII, 2013, 263.-282. or.
- Cid Abasolo, Karlos: "Hibridismo lingüístico en la Vasconia peninsular: influjo de la lengua castellana en la lengua vasca", RLLCGV, XIX, 2014, 247.-266. or.
- Escandell, María Victoria: *La comunicación*, Madril, Gredos, 2005.
- Fita, Fidel: "Biografía del autor", in Manuel Larramendi: *Corografía o Descripción general de la muy noble y muy leal provincia de Guipúzcoa*, Bartzelona, Subirana, 1882, 5.-7. or.
- Gómez, Ricardo: "Larramendiren gramatika eta gramatikagintzaren historia", ASJU, XXV-3, 1991, 783.-796. or.
- Gumperz, John J.: *Discourse Strategies*, Cambridge, Cambridge University Press, 1982.
- Gumperz, John J. (ed.): *Language in Social Groups*, Stanford, Stanford University Press, 1972.
- Hodgson, Richard eta Sarkona, Ralf: "Seeing in Depth: the Practice of Bilingual Writing", *Visible Language*, 27 (1-2), 1993, 7.-40. or. Hemendik eskuratu: <https://s3-us-west-2.amazonaws.com/visiblelanguage/pdf/27.1-2/seeing-in-depth-the-practice-of-bilingual-writing.pdf>
- Imízcoz Beunza, José María: "Entre apertura y «enclavamiento». Las redes de los navarros en la primera globalización (1512-1833)", *Príncipe de Viana*, LXXVI 26, 2015, 137.-176. or.

Lakarra, Joseba Andoni: "Larramendiren hiztegigintzaren inguruan", ASJU, XIX-1, 1985, 9.-50. or.

Lakarra, Joseba Andoni: "Larramendirekin aurreko hiztegigintza-ren historiaz: aztergai eta gogoeta", in Joseba Andoni Lakarra (ed.): *Manuel Larramendi. Hirugarren mendeurrena (1690-1990)*, Andoain, Andoaingo Udal, Euskaltzaindia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, 1992, 279.-312. or.

Lakarra, Joseba Andoni (ed.): *Manuel Larramendi. Hirugarren mendeurrena (1690-1990)*, Andoain, Andoaingo Udal, Euskaltzaindia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, 1992.

Larramendi, Manuel: *De la Antigüedad y universalidad del Bascuen-ce en España: De sus perfecciones y ventajas sobre otras muchas Lenguas. Demonstración previa al Arte que se dará a luz desta Lengua*, Salamanca, 1728.

Larramendi, Manuel: *El Imposible Vencido. Arte de la lengua vas-congada*, Salamanca, 1729.

Larramendi, Manuel: *Diccionario trilingüe del castellano, bascuen-ce, y latín*, Donostia, Riesgo y Montero, 1745.

Larramendi, Manuel: *Corografía o Descripción general de la muy noble y muy leal provincia de Guipúzcoa*, José Ignacio Tellechea (ed.), Donostia, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1969 [1754].

Larramendi, Manuel: *Sobre los Fueros de Guipúzcoa. Conferencias curiosas, políticas, legales y morales sobre los fueros de la M.N. y M.L. provincia de Guipúzcoa*, José Ignacio Tellechea (ed.), Donostia, Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, 1983 [1757].

Larramendi, Manuel: *Autobiografía y otros escritos*, José Ignacio Tellechea (ed.), Donostia, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1973 [1766].

Larrarte, Enrike: "Aita Manuel Larramendiren sendia. Dokumentu batzuk", *Leyçaur*, 6, 2000, 39.-163. or.

Lasagabaster, Jesús María: "La ilustración en la vida literaria vasca del siglo XVIII", *Lapurdum*, 9, 2004, 149.-157. or.

Michelena, Luis Ik. Mitxelena, Koldo.

Mitxelena, Koldo: "La obra del Padre Manuel de Larramendi 1690-1766", *Cuadernos de la Cátedra Feijoo*, 6, 1959, Oviedo [SHLV II, 900.-911. or.].

Mitxelena, Koldo: "Euskal iztegigileak XVII-XVIII garren mendee-tan", *Euskera*, VI, 1961, 7.-22. or.

Mitxelena, Koldo: *Historia de la literatura vasca*, Madril, Minotau-ro, 1960.

Mitxelena, Koldo: “Euskara eta euskararekiko ikerlanak (1700-1880)”, *IX Congreso de estudios vascos. Antecedentes próximos de la sociedad vasca actual. Siglos XVIII y XIX*, Bilbao, 1983, 237.-250. or. [SHLV II, 948.-964. or.; MEIG VI, 47.-88. or.].

Mitxelena, Koldo: “Aurkezpena”, in Ibon Sarasola: *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia. A-Aurten*, Donostia, Kutxa, 1984, 11.-23. or. [SHLV I, 349.-360. or.; MEIG VII, 25.-46. or.].

Montes-Alcalá, Cecilia: “Code-switching in US-Latino Novels”, in Mark Sebba, Shahrzad Mahootian eta Carla Jonsson (ed.): *Language mixing and code-switching in writing. Approaches to mixed-Language written discourse*, Abingon, UK, Routledge, 2012, 68.-88. or.

Perez Gaztelu, Elixabete: “Larramendi Mitxelenaren begietan”, in Joseba Andoni Lakarra (ed.): *Manuel Larramendi. Hirugarren mendurrenna (1690-1990)*, Andoain, Andoaingo Udal, Euskaltzaindia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, 1992, 153.-175. or.

Perez Gaztelu, Elixabete: *Koldo Mitxelena Elissalt, egitasmoa eta egitatea*, Errenerteria, Errenerteriako Udal, 1995.

Poplack, Shana: “Sometimes I’ll start a sentence in English y termino en español: toward a typology of code-switching”, *Linguistics*, 8, 1980, 581.-618. or.

Sarasola, Ibon: “Larramendiren eraginaz eta”, ASJU, XX-I, 1986, 203.-215. or. [ASJU Geh. 15, 1992, 313.-325. or.].

Sebba, Mark: “Multilingualism in written discourse: An approach to the analysis of multilingual texts”, *International Journal of Bilingualism*, 17 (1), 2012, 97.-118. or.

Sebba, Mark: “Researching and Theorising Multilingual Texts”, in Mark Sebba, Shahrzad Mahootian eta Carla Jonsson (ed.): *Language mixing and code-switching in writing. Approaches to mixed-Language written discourse*, New York, Routledge, 2012, 1.-26. or.

Sebba, Mark, Mahootian, Shahrzad eta Jonsson, Carla (ed.): *Language mixing and code-switching in writing. Approaches to mixed-Language written discourse*, New York, Routledge, 2012.

Schendl, Herbert: “Literacy, Multilingualism and Code-switching in Early English Written Texts”, in Mark Sebba, Shahrzad Mahootian eta Carla Jonsson (ed.): *Language mixing and code-switching in writing. Approaches to mixed-Language written discourse*, New York, Routledge, 2012, 27.-43. or.

Tellechea, José Ignacio: “El jesuita Manuel de Larramendi. Miscelánea con motivo de su centenario (1766-1966)”, BRSVAP, 22, 1966, 307.-360. or.

Tellechea, José Ignacio: “Personalidad humana de Larramendi”, in _____ 37

Joseba Andoni Lakarra (ed.): *Manuel Larramendi. Hirugarren mendurrena (1690-1990)*, Andoain, Andoaingo Udala, Euskaltzaindia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, 1992, 27.-38. or.

Túrez Aguirrezzabal, Itziar: “Larramendi y Astarloa a la luz de la preceptiva”, *Letras de Deusto* 34, 102, 2004, 177.-188. or.

Urgell, Blanca: “Axular eta Larramendi”, ASJU, XXV-3, 1991, 901.-928. or.

Urgell, Blanca: “*Hiztegi Hirukoitzaren kanpoko eta barruko historiaz*”, in Xabier Artiagoitia, Patxi Goenaga eta Joseba Andoni Lakarra (ed.): *Erramu boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2003, 629.-649. or.

Urgell, Blanca: “Etimología eta neología Larramendiren *Hiztegi Hirukoitzean* (1745)”, *Lapurdum*, IX, 2005, 299.-310. or.

Wolton, Dominique: *Il faut sauver la communication*, Paris, Éditions Flammarion, 2005.